

II. ERANSKINA: LEHENTASUN-MAILA EZARTZEA

XEDEA

Kontuan hartuta foru-errepideek eragiten duten inpaktu akustikoa murrizteko eskura dauden baliabide publikoak mugatuak direla, nahitaez ezarri behar izan da lehentasun-indize bat zehazteko zein hurrenkeratan ekingo dien sailak isolamendu akustikoa hobetzeko jarduketei.

Eraikin bakoitzean kalkulatu da lehentasun-indize hori, honako aldagai hauei begiratuta:

- Zenbat pertsona dauden gauzez kalitate akustikoaren helburuak (KAH) gainditzen dituzten zarata-mailen eraginpean.
- Zein zarata-mailaren eraginpean (KAH) dauden herritar horiek.

METODOLOGIA

Eraikin bakoitzari aplika dakioken indizea ezartzeko, zarataren eraginpean dagoen herritar-kopurua hartzen da kontuan. Zarataren dagokionez, gauerako zarata-atalase gisa ezarritako kalitate akustikoaren helburua (55 dBA) gainditzen den ala ez begiratzen da, fatxaden immisio-mailaren arabera zenbatuz. Lehentasuna ematen zaie zarata-maila handiagoak jasaten dituztenei, mailaka multzokatuta eta maila bakoitzari beheko taulan aipatzen den ponderazio-koefizientea emanez:

HERRITARRAK MULTZOKATZEKO MAILAK, GAUEZ JASATEN DEN ZARATA-MAILAREN ARABERA (23:00etatik 07:00etara)	MAILA BAKOITZARI APLIKATZEN ZAION PONDERAZIO-KOEFIZIENTEA
[55- 60) dBA	5
[60- 65) dBA	10
[65- 70) dBA	15
≥70 dBA	25

Honako formula hau aplikatuz lortzen da eraikin bakoitzaren lehentasun-indizea:

$$\text{Lehentasun - indizea} = \sum_{n=1}^4 "n" \text{ mailari erakutsitako biztanleak } \times "n" \text{ maila-koefizientea}$$

Hona erabilitako metodologiaren adibide bat:

ADIBIDE TEORIKOA			Puntuazioa guztira
Eraikineko herritarrak multzokatze mailak	Ponderazio-koefizientea	Maila bakoitzean zenbaturiko biztanleak	
[55- 60) dBA	5	22	$(22*5)+(18*10)+(12*15)+(6*25) =$ 620
[60- 65) dBA	10	18	
[65- 70) dBA	15	12	
≥70 dBA	25	6	



Metodologia horri jarraituz, sailkatu dira bizitegi-erabilera duten eraikin guztiak, soinu-presioaren maila jarraitu baliokidea (A haztatua) 65 dB baino handiagoa dutenak, gaualdian zehazturik, $L_n > 65 \text{ dB(A)}$.